



# Betzuen etxebizitza

Aldaerak:  
Ahozkoa:



43° 11' 59"

2° 34' 19"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

*“... la casería titulada de Besuen y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... en la Cofradía o Barriada de San Lorenzo que es de dos viviendas compuesta en el piso bajo de cocina, cuartos dormitorios y cuada, y su habitación superior de cuartos, desban y pajares... ocupa con inclusión del horno y antusano ciento treinta y cinco estados que hacen tres áreas y catorce centiáreas...”*

*DJE, 3/ 197. or. (1877)*

Oiz mendian aurkitzen diren hiru etxeak kenduta, Berrizko baserririk garaiena da honako hau, kokapenari dagokionez. Bizkaiko su-errol-detan dokumentatzen da lehenengo aldiz, hots, *Besuen* (1704) eta *Vezuen* (1745). Izenak ia ez du aldaketarik jasan, eta mendeetan ia forma bera mantendu du: *Besuen* (1825, PE/1825), *Besúen* (1859, BUA, Nmcr) eta *Bexuen* (1905, BUA, 40. or.). 1967ko Udal-errolan *Betzuen* (BUA, CE) forma agertzen da, eta gaur egun, forma horixe bera da normalizatua izan dena. Dena den, berriztarren artean, *Bétzuen* da ahozko formarik erabiliena.

Bizitza biko baserria da, eta fatxadan ere antzematen da hori. Edozelan ere, sarrerako atea erdi ezkutuan dago, etxearen aurrean hormaz inguratutako aterpea egin ziotelako. Isurki biko teilatuaren azpian solairu bi eta ganbara daude. Harlangaitza erabili zuten jasotzeko, nahiz eta kantaletan harlandu bikaina eduki. Bao guztiek, atea barne, egurrezko dintelak dituzte. Bitxia da iparraldean daukan begiratoki modukoa. 1800. urte inguruko etxea izan daiteke.

## toponimia

Izen ilun eta deigarria Lasuen antzera (**Ikus Lasuen**) ulertzen ez duguna. Pentsa liteke amaieran gune hitza dagoela, baina horrek ez du gainerako guztia argitzen. Gaztelaniaz ez dagoenez z soinua iudikatzeko ikurrik Besuen moduan ageri da. Hori eta ahaz Betzuen dela kontuan hartzen badugu pentsa genezake benetako izena **Betsuen** zela Bizkaian aspaldian galdu baitzen ts soinua eta tz bihurtu, sa(r)atza (saratsa) kasuan bezala.